

## 032 MATEMATIKA ETA GEOGEBRA: BIKOTE OSAGARRIA

<b>Ikasmaila:</b> DBH 3. Maila	<b>Inplikaturiko ikasgaiak:</b> Matematika
<b>Ikaskuntza-egoeraren izenburua:</b> Zaborrontziak pintatzera	
<b>Saio kopurua:</b> Taldekideen arabera 3-4 saio izan daitezke	
<b>Markoa:</b> <b>A. Testuingurua:</b> Ikaskuntza-egoera hau, batetik, indarrean dagoen <i>2020ko abenduaren 29ko 3/2020 Hezkuntzari buruzko Lege Organikoko (LOMLOE) DBHrako elementu curricularretan</i> oinarritzen da. Bestetik, <i>Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua</i> eta <i>Urteko Plangintza</i> ere kontuan izan beharko ditugu. Agenda 2030erako latzeko aukera paregabea da. <b>B. Abiapuntua:</b> Ikasleei erronka bat proposatuko diegu: ikastetxeko zaborrontziak pintatu beharko dituzte, ahalik eta zehatzen eta horretarako aurrekontu bat prestatuz. <b>C. Azken ekoizpena:</b> Talde bakoitzak dokumentu batean zaborrontzien azalerak, erabilitako pinturak eta aurrekontuak zehaztu beharko ditu.	
<b>Metodologia:</b>  <b>A. Printzipioak:</b> Ikaskuntza-egoera hau praktikan jartzean, alderdi emozionala zainduko dugu. Proposatutako helburuak betetzeko, beharrezkoa izango da ikasleak zereginetan inplikatzea eta haien konpromisoa lortzea. Norberaren lanak taldeko proiektuan duen pisuaz jabetuko dira.  <b>B. Antolakuntza:</b> Gelako kideak taldeka banatuko ditugu, 3-4ko taldeak eginez, eta erronka moduan proposatuko diegu zaborrontziak marraztea. Aurrekonturik zehatzena egiten duen taldeari emango zaio lan lan hori burutzeko txartela. Proiektu moduan, erronka moduan, matematikaren kompetentziak, prozedurak eta jarrerak modu integratu batean lantzeko bide bat planteatu dugu.  <b>C. Baliabideak:</b> Kuadernoa, boligrafoa eta ordenagailua beharko dituzte. Informazioa biltzeko baliabide ugari modu digitalean topa daitezke, hala nola, pinturen prezioak. Zaborrontzien azalerak neurtzeko, Geogebra erabiliko dugu. Bertan, zaborrontzien irudiak egingo ditugu eta azalerak kalkulatzeko oso lagungarriak diren garapenak erabiliko ditugu.	
<b>Ebaluazioa:</b> -Ebaluazioa behaketan oinarrituko da, ikaskide bakoitzak taldean egiten duen lana gainbegiraturaz. -Talde bakoitzaren lana ebaluatzeko, errubrika bat erabiliko dugu: kalkuluak ondo egin dituzten, aurrekontua ondo prestatu duten eta baliabideak egoki erabili dituzten ebaluatzeko. -Autoebaluazio eta koebaluazio bidez, taldelana ebaluatuko dugu.	

